



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko azaroaren 13a

106. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru lege proiektuak:**

—2003 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua ([2. or.](#)).

H SAILA:

**Bestelako testu arau-emaileak:**

—2003 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko arauak ([23. or.](#)).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

## **2003 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari enzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2002ko azaroaren 11n hartutako Erabakiaren bidez, 2003 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 151 eta 125. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarra entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** 2003 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko Arauek ezarritako jardunbideaz bideratzea. Arau horiek Biltzarreko Mahaiak 2002ko azaroaren 12an hartutako Erabakiaren bidez onetsi zituen.

**2.** Proiektu hartaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen esku uztea.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat** irekiko da, **2002ko azaroaren 28ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek zuzenketak aurkeztu ahal izateko, Erregelamenduko 126 eta 152. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 2002ko azaroaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

## **2003 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua**

### **I. TITULUA** **Kredituak eta horien aldaketak**

#### **I. KAPITULUA** **Hasierako kredituak eta horien finantzaketa**

**1. artikulua.** Nafarroako Aurrekontu Orokorren eremua.

Onetsi egin dira Nafarroako 2003rako Aurrekontu Orokorrak. Honako hauek hartzen dituzte:

a) Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen aurrekontua.

b) Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontua.

c) Foru Komunitateko sozietate publikoen jarduketak, inbertsio eta finantzaketa programak, baita finantza egoerak ere.

**2. artikulua.** Kreditu eta eskubide ekonomiko-ko kopurua.

1. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuetako gastuen egoera-orrietan sartutako programak betetzeko onetsi diren kredituek, bateratuta, 2.631.950.638 euro egiten dute.

2. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuen diru-sarreraren egoera-orrietan, aurrekontu ekitaldi honetan ustez likidatuko diren eskubide ekonomiko-koen zenbatespenak agertzen dira; hain zuzen ere, 2.631.950.638 euro egiten dute bateratuta.

#### **II. KAPITULUA** **Aurrekontuetako kredituen aldaketa**

**3. artikulua.** Aurrekontuetako kredituen aldaketa.

Aurrekontuetako kredituen aldaketak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen aginduen arabera izanen dira, baldin eta foru lege honek agindu horiek aldatzen ez baditu.

Aurrekoa gorabehera, ondokoak ez dira aurrekontu aldaketatzat hartuko:

a) Kontusailen arteko funts mugimenduak, baldin eta kontusail horiek helburu berbera badute, eta Europako Batasunak, horiek kofinantzatzeagatik, horien gaineko kontrola hobetzea eskatzen duelako soilik bereizten badira.

b) "Su-itzaltzea eta salbamendua" izenburupeko 052 programako kontusailen arteko funts mugimenduak, baldin eta plantilla-aldaketen ondoriozkoak badira, hau da, funtzionarioen atxikipena aldatu egin delako "Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzuaren" eta "Su-itzaltze eta Salbamendurako Partzuergoaren" artean. Lehendakaritza Justizia eta Barne kontseilariari ahalmena eman zaio aipatu mugimenduak baimentzeko.

c) "Familia" izenburupeko 921 programako kontusailen arteko funts mugimenduak, familiaren babes sozial eta ekonomikoa bermatzera bideratzen direnak; haiekin bereizkuntza bat egiten da, aurrekontu-beharrengatik, haien jarraipen eta kontrol egokia egiteko.

#### 4. artikulua. Kreditu gehikuntzak.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluko a)tik f) letra bitarteko letretan aipatutako kredituez gain, 2002. urtean ondoko kredituek ere gehikuntzarik izaten ahal dute:

1. Lehendakaritza Justizia eta Barne Departamentuko kontusailok:

a) 010001-00001-2275-112100 kontusaila, "Hauteskunde prozesuak" izenekoak.

b) 020000-04000-1620-122600 kontusaila, "Langileei buruzko hitzarmena aplikatzeko funtsa" izenekoak.

c) 020002-04300-1309-122600 kontusaila, "Aldi baterako kontratuen bukaerako kalte-ordainak" izenekoak.

d) 020002-04100-1001-122600 kontusaila, "Lehendakari ohi eta kontseilari ohientzako presazioak" izenekoak.

e) 020002-04100-1239-122602, "Atalburutzak eta bulegoburutzak betetzeko jarduketa planarentzako lansari osagarriak".

f) 020002-04120-1239-122600 kontusaila, "Funtzionarioen famili laguntza, osagarri berriak, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuk" izenekoak.

g) 020002-04120-1309-122600 kontusaila, "Lan kontratudunen famili laguntza, osagarri berriak, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuk" izenekoak.

h) 020002-04100-1614-314100 kontusaila, "Aldez aurretik jubilatzeagatik jaso beharreko kalte-ordaina, 259/1988 Foru Dekretua" izenekoak.

i) 020002-04100-1620-313602 kontusaila, "Lan-istripuengatik aldi baterako lan-ezintasunaren subsidioa ordaintzea" izenekoak.

j) 020002-04100-1700-122600 kontusaila, "Kalte-ordaina derrigorrezko lekualdaketagatik, bizilekuaren aldaketa eta guzti" izenekoak.

k) 020002-04100-1709-122602 kontusaila, "Lan-istripuengatik kalte-ordaina" izenekoak.

l) 020002-04200-1620-313600 kontusaila, "Osasun laguntza-erabilera berezia" izenekoak.

m) 020002-04200-1709-122600, "Epaia betearaztea" izenekoak, epai horietan ezartzen diren zenbatekoen neurrian.

Betearazte horrek I. kapitulu ekonomikoari ez dagokion gasturik ekartzen baldin badu, horretarako kontusail berariazkoa gaitzen ahal da; hori ere handitzen ahalko da. Kasu horren barnean egonen dira Nafarroako Administrazio Auzitegiaren ebazpenak, horien betearazte subsidiarioaren ondorioz Nafarroako Gobernuak funts ekonomikoak edukitzea beharrezkoa gertatzen denean, baita Nafarroako Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren eta zerga administrazioaren organo kudeatzailearen ebazpenak ere, gastuen itzulketa eskatzen baldin bada, eta, era berean, Nahitaezko Desjabetzapenerako Probintzi Epaimahaiaren erabakiak ere, eta, orobat, Nafarroako Foru Komunitateak ordaindu behar dituen FEOGA-Bermearen laguntzen kudeaketaren ondoriozko finantza-zuzenketak.

n) 020002-04300-1709-122600 kontusaila, "Zerbitzuak aitortzeko Gizarte Segurantzarekiko hitzarmenaren aurreikuspena" izenekoak.

ñ) 050002-02400-4809-221100 kontusaila, "Diru laguntzak" izenekoak eta 050002-02400-8319-221100 kontusaila, "Maileguak" izenekoak.

o) 051000-02100-6054-222102 kontusaila, "Segurtasuna" izenekoak.

2. Ekonomi eta Ogasun Departamentuko kontusailok:

a) 112001-11410-9500-633100 kontusaila, "Osoko kreditua. 8/1988 Foru Legeko 39. artikulua" izenekoa.

b) 114002-11300-6020-612700 kontusaila, "Instalazio berriko eraikuntza eta obrak, ondare higiezin birmoldatzea eta janzteia".

c) 114002-11300-8500-612700 kontusaila, "Sektore publikoko akzioak erostea" izenekoa.

d) 121000-12100-6080-613100 kontusaila, "Tributu-informatikako sistema integratua" izenekoa.

e) 121000-12140-2273-613100 kontusaila, "Datu fiskalak grabatzea" izenekoa.

f) 125002-12520-2279-612400 kontusaila, "Beste zerbitzu batzuk (enkanteak)" izenekoa.

g) 130000-11100-2269-911100 kontusaila, "Transferentzia berriak eskuratzearen ondoriozko gastuak" izenekoa.

3. Toki Administrazioiko Departamentuko kontusailok:

a) 210001-21500-4600-912900 kontusaila, "Kalitate eta modernizazio Plan Zuzentzailea" izenekoa.

b) 210001-21500-7600-912900 kontusaila, "Kalitate eta modernizazio Plana" izenekoa.

c) 210002-21400-4600-912900 kontusaila, "Toki enteen administrazio-berregituraketa prozesuak sustatzea" izenekoa.

d) 210002-21400-7600-912900 kontusaila, "Toki Erakundeetako administrazio-berregituraketako prozesuak sustatzea" izenekoa.

e) 211000-21120-8206-124200 kontusaila, "Udal funtzionarioen montepioa kudeatzea" izenekoa.

f) 211001-21220-4600-912500 kontusaila, "Toki entitateen arazoei aurre egiteko finantza-laguntzak" izenekoa.

g) 212000-21210-4600-912105 kontusaila, "Udalkideen araberrako konpentsazioa Udalei. Kargu publikoen finantzazioa" izenekoa.

h) 212001-21300-7600-441100 kontusaila, "Ibaiek arazteko eta saneatzeko Plan Zuzentzailea" izenekoa, hurrengo obren 2003. urteko zatia ordaintzeko behar beste diruarekin: Herrilan, Garraio eta Ingurumen Ministerioak eta Nafarroako Foru Komunitateko Toki Administrazioiko Departamentuak izenpetu duten Hitzarmenean -hirietako hondakin urak saneatu eta arazteko Plan Nazionalerako jarduketari buruzkoan- jasotako

obrak, zeinak Europako Batasunerako Kohesio funtsen eta Garapen Erregionalerako Europako Funtsaren (FEDER) (2. helburua, 2. ardatza 1. esparrua) kontura finantzatzeko proiektuetakoak baitira.

i) 212001-21310-7600-441100 kontusaila, "Goi-presioko hornidurarako Plan zuzentzailea" izenekoa, hurrengo obren 2003. urteko zatia ordaintzeko behar beste diruarekin: Nafarroako Gobernuoko Toki Administrazioiko Departamentuak eta Jurramendiko Mankomunitateak, "Jurramendiko Mankomunitatearen Ipar-mendebaldeko hornidura" egiteko, 2002ko apirilaren 20an sinatu hitzarmenekoak, Europako Batasunaren Kohesio Funtsari atxikitako proiektuaren arabera (2001eko abenduaren 20ko C-2001-4208 Erabakia).

j) 212001-21310-7600-441102 kontusaila, "Plan zuzentzaileetan sartuta ez dauden presio handiko hornidura lanak" izenekoa.

k) 212001-21320-7600-442103 kontusaila, "Hiri hondakin solidoen Plan Zuzentzailea. Hitzarmena Iruñerriko Mankomunitatearekin" izenekoa.

l) 212001-21320-7600-912200 kontusaila, "Eskualde behartsuetako azpiegituren plan berezia" izenekoa.

m) 212002-21300-7600-441102 kontusaila, "Hitzarmena Iruñerriko Mankomunitatearekin. Tiebasko ura tratatzeko planta" izenekoa.

n) 212002-21300-7600-442100 kontusaila, "Arga ibaiko parkea", Garapen Erregionalerako Europako Funtsa (FEDER) (2. helburua, 2. ardatza, 11. esparrua) bildutako proiektuak gauzatzeko 2003. urteari dagokion ordainketa finantzatzeko adina.

4. Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko kontusailok:

a) 320000-32200-4459-431100 kontusaila, "Zaharberritze bulegoetarako laguntzak" izenekoa.

b) 320000-32210-6000-431100 kontusaila, "Lurra erosi eta etxebizitzak eta eraikinak sustatzea" izenekoa.

c) 320000-32210-6000-431102 kontusaila, "Eroslehentasun eta atzera-eskuratze eskubideak gauzatzeko, eta ondasun higiezin eskaintzak" izenekoa.

d) 320000-32220-4809-431200, "Etxebizitzen errentariendako diru laguntzak" izenekoa.

e) 320000-32220-7800-431200 kontusaila, "Etxebizitzaren arloko jardueretarako diru laguntza eta sorospenak. Foru programa" izenekoa.

f) 320000-32220-7800-431202 kontusaila, "Bioklimatismorako diru laguntzak" izenekoa.

g) 330000-31200-4809-533100 kontusaila, "Partikular eta sozietateentzako kalte-ordain, aseguru eta laguntzak" izenekoa.

5. Hezkuntza eta Kultura Departamentuko kontusailok:

a) 400000-40200-1239-421100 kontusaila, "Zerbitzuen aitorpenerako, osagarri berrietarako, famili laguntzarako eta beste batzuetarako aurreikuspena" izenekoa.

b) 400000-41000-1310-421100 kontusaila, "Aldi baterako langileen ordainsariak" izenekoa.

c) 400000-41000-1600-421100 kontusaila, "Gizarte Segurantza" izenekoa.

d) 41110-41120-7600-424102 kontusaila, "Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko" izenekoa.

e) 41110-41610-4600-422200 kontusaila, "Departamentuak haurrak eskolatzeko erabilitako udal eraikin eta eskola-kontzentrazioetarako diru laguntza" izenekoa.

f) 410004-41620-2210-425200 kontusaila, "Jantokiak" izenekoa.

g) 410004-41620-2230-425200 kontusaila, "Eskola garraioa" izenekoa.

h) 421000-41500-4701-422000 kontusaila, "Historia eta geografia liburuak euskaraz argitaratzea" izenekoa.

i) 441000-43100-4455-422400 kontusaila, "Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko hitzarmena: Oinarrizko diru laguntza" izenekoa.

j) 441000-43100-4800-425100 kontusaila, "Prestakuntzarako eta Ikerketa eta Garapenerako (I+G) Planaren laguntzak" izenekoa.

k) 441000-43100-6001-424100 kontusaila, "N.U.P.erako desjabetzeak" izenekoa, desjabeturiko lursailak itun bidez zehaztuko den prezioan ordainduko direla bermatzeko adinako zenbatekoan.

l) 441000-43100-6091-424100 kontusaila, "Tuterako unibertsitate-instalazioei buruzko proiektua eta oroit-idazkia" izenekoa.

m) 441000-43100-7455-424100 kontusaila, "Nafarroako Unibertsitate Publikoa finantzatzeko hitzarmena: Kapital transferentziak" izenekoa.

n) 451000-42110-4816-456100 kontusaila, "Kultur eta arte entitateekin sinaturiko hitzarmenak" izenekoa.

ñ) 451000-42110-7600-452100 kontusaila, "Kultur etxeen eta udaleko beste kultur gune batzuen eraikuntza eta ekipamendua" izenekoa.

o) 452000-42200-7300-458100 kontusaila, "Nafarroako Ondare Historikoa zaintzeko Fundazioa" izenekoa.

p) 452000-42220-7300-453100 proiektua, "Oteiza Fundazioko Museo Etxea. Inbertsio eta gastuak" izenekoa.

q) 452000-42230-6020-452100 kontusaila, "Nafarroako Atxibo Nagusia. Egoitza berria" izenekoa.

r) 453000-42310-6020-452102 kontusaila, "Liburutegi Nagusi berria" izenekoa.

6. Osasun Departamentuko kontusailok:

a) 1241 ekonomi kodekoak, osasun arloko udal langile transferituen lansariak ordaintzeko direnak, Foru Administrazioakoak izanik Toki Osasunaren zerbitzuan dauden eta Nafarroa Osasun Eskualdetan Banatzeari buruzko azaroaren 13ko 22/1985 Foru Legea eta urriaren 20ko 11/1992 Foru Legea aplikatzearen ondorioz transferitzen diren funtzionarioen soldatak ordaintzeko behar den zenbatekoan.

b) 540000-52000-1239-411200 kontusaila, "Zerbitzuen aitorpen, famili laguntzaren gehikuntza, gradu, antzinatasun, osagarri berri, eszedentziatik itzultze eta beste batzuetarako aurreikuspena" izenekoa.

c) 540000-52000-1309-411200 kontusaila, "Zerbitzuen aitorpen, antzinatasunaren gehikuntza, osagarri berri eta beste batzuetarako aurreikuspena" izenekoa.

d) 540000-52000-1600-411202 kontusaila, "Gizarte Segurantza, zor geroratuen amortizazioa" izenekoa.

e) Botikak erosteko direnak, 2215 kode ekonomikoak dutenak, 540, 541, 542, 543, 544, 545, 546, 547 eta 549 gastu-programetan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan.

f) 547001-52310-2279-412204 kontusaila, "Haurren Hortzetako Osasun Programa (HHOP) zabaltzeko Programa eta elbarriendakoa abian jartzekoa" izenekoa, aho-hortzetako osasun laguntza arian-arian 18 urte arte zabaltzea eta elbarriendako aho-hortzetako osasun laguntza programa abian jartzea helburu dituena.

g) 547005-52300-2269-411200 kontusaila, "NGOarekin koordinazioa, proiektuak eta programak" izenekoa.

h) 547006-52300-4809-412200 kontusaila, "Farmazia prestazioak" izenekoa.

i) 547006-52300-4809-412202 kontusaila, "Zurgatzaileak eta beste osasun-produktu batzuk" izenekoa.

j) 548000-52202-2590-411206 kontusaila, "Organoen transplanteak" izenekoa.

7. Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko hurrengo kontusail hau:

a) 620001-61100-6010-513400 kontusaila, "Edukiera handiko errepideak: Iruña-Logroño" izenekoa.

8. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko kontusailok:

a) 710000-71210-7700-713102 kontusaila, "Kooperatiba-araubideko produkzio-bideetarako eta makineriarako diru laguntzak" izenekoa.

b) 710001-71230-4700-717104 kontusaila, "Nekazaritza-ingurumeneko neurriak, PDR (FEOGA-G)" izenekoa.

c) 710002-71220-4700-719102 kontusaila, "Aseguragarriak ez diren nekazaritza-ondasunen eta egituren ohiz kanpoko kalteak" izenekoa.

d) 710002-7700-71220-713100 kontusaila, "Nekazaritza-ustategien eraginkortasuna hobetzea. PDR (FEOGA-G)" izenekoa.

e) 711000-71320-4700-71320 kontusaila, "Entzefalopatia espongiforme kutsakorrekin zerikusia duten jarduketetarako transferentzia arruntak" izenekoa.

f) 711000-71320-7700-713202 kontusaila, "Entzefalopatia espongiforme kutsakorrekin zerikusia duten jarduketetarako transferentziak" izenekoa.

g) 711001-71310-7600-713200 kontusaila, "Mendialdeko nekazaritza azpiegituretarako laguntzak" izenekoa.

h) 720000-72130-7400-532100 kontusaila, "Ureztaketa eremu berrietarako edo daudenak hobetzeko diru laguntzak (FEOGA-G)" izenekoa.

i) 720001-72120-6019-531200 kontusaila, "Lurren jabetza eta lurzatien kontzentrazioa berrantolatzeako obrak, PDR (FEOGA-G)" izenekoa.

j) 721000-72210-7701-716100 kontusaila, "Nekazaritza industrializatu eta merkaturatzeko inbertsioetarako diru laguntzak, kooperatibak ez direnentzat, PDR (FEOGA-G)" izenekoa.

k) 721000-72210-7701-716105 kontusaila, "Diru laguntza, kooperatiben nekazaritza-produktuak gorde eta eraldatzeko tegiak eraiki, zabaldu edo hobetzeko, PDR (FEOGA-G)" izenekoa.

9. Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuko kontusailok:

a) 810001-81130-6015-535102 kontusaila, "Industria azpiegituretako inbertsioak. FEDER Programak" izenekoa.

b) 810001-81130-7600-535100 kontusaila, "Udalek ekonomi jarduetarako eremuak ezartzeko laguntzak" izenekoa.

c) 830001-81120-7701-724202 kontusaila, "Inbertsio eta enpleguarengatik funts galdurako diru laguntzak" izenekoa.

d) 830002 proiektuak, "Produkzioaren berrantolamendua".

e) 840001-81200-7709-542403 kontusaila, "I+G proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun azterlanetarako diru laguntzak" izenekoa.

f) 84001-81200-7810-542405 kontusaila, "Proiektu sektorial eta tematikoetarako transferentziak" izenekoa.

g) 860002-82210-7600-751202 kontusaila, "Toki entitateentzako transferentziak, hitzarmenen bidetzkoak" izenekoa.

h) 860002-82210-7600-751203 kontusaila, "Hitzarmena Arguedasko Udalarekin, turismo azpiegituretarako" izenekoa.

i) 881001-84100-4810-322100 kontusaila, "Enpleguko zentro berezientzako transferentziak, eragiketa arruntetarako" izenekoa.

j) 881001-84100-4810-322104 kontusaila, "Laneratzeko zailtasun handienak dituztenak lan munduan sartzeko programak" izenekoa.

10. Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza Departamentuko kontusailok:

a) 900000-91200-4810-134203 kontusaila, "Nazioko eta nazioarteko larrialdietarako laguntzak" izenekoa.

b) 921002-93240-4600-313400 kontusaila, "Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko".

c) 921002-93240-4809-313400 kontusaila, "Erditze multiplea izan duten familiei laguntzea" izenekoa.

d) 921002-93240-4809-313402 kontusaila, "Laguntzak, etxez etxeko laguntza pertsonala emateko" izenekoa.

e) 921002-93240-4809-313403 kontusaila, "Famili eta lan bizitza bateragarri egiteko laguntzak familientzat" izenekoa.

f) 925002-93300-4809-313400 kontusaila, "Bizibiderik gabeko familia nafarrendako laguntzak" izenekoa.

g) 925003-93300-4600-313400 kontusaila, "Oinarriko Gizarte Zerbitzuak" izenekoa.

h) 926001-93300-4809-314200 kontusaila, "Kotizazio gabeko pentsioak" izenekoa.

11. Nafarroako Kontseiluaren ondoko kontusailak:

a) C0000-C0000-2300-112202 kontusaila, "Kontseilukideentzako dietak, bilkuretara joateko" izenekoa.

b) C0000-C0000-2339-112200 kontusaila, "Kontseilukideei eta bestelako adituei eskatutako ponentzietarako bestelako sariak" izenekoa.

12. Nafarroako Parlamentuaren ondoko kontusailak:

a) P01002-P1000-4451-111200 kontusaila, "Nafarroako Gobernuaren transferentzia arruntak" izenekoa, zerbitzu informatikoetarako kreditu gehiago behar diren kasuetarako.

**5. artikulua.** Bete gabeko lanpostuak direla eta, kreditu soberakinen norakoa.

Bete gabeko lanpostuak direla eta eman daitezkeen soberakinak behin-behineko kontratuak finantzatzeko erabiltzen ahal dira, zerbitzuen funtzionamendu onerako beharrezkoa baldin bada. Xede horretarako ezarriko dira kredituak, horiei dagokien programan.

## II. TITULUA Langileri gastuak

### I. kapitulua

#### Jarduneko langileriaren ordainketak

**6. artikulua.** Nafarroako administrazio publiko-  
etako funtzionarioen eta estatutupeko langileen  
lansariak.

2003ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako  
administrazio publikoen eta haien erakunde auto-  
nomoen zerbitzuko funtzionario eta estatutupeko  
langileen ordainsariak 100eko 2 gehituko dira  
–Foru Lege honen lehen xedapen gehigarrian  
ezarritakoa bete ondoren–. Horrek ez du ezertan

galaraziko, hala ere, lanpostu bakoitzaren ordain-  
sarietan egokipenak egitea, hala badagokie, zail-  
tasun tekniko berezia, dedikazioa, erantzukizuna,  
arriskugarritasuna edo nekagarritasuna behar  
bezala aintzat hartzeko.

**7. artikulua.** Nafarroako administrazio publiko-  
etako lan-kontratudunen lansariak.

1. 2003ko urtarrilaren 1etik aitzina, Nafarroako  
Foru Komunitateko Administrazioaren eta horren  
erakunde autonomoen zerbitzuko lan-kontrata-  
tuen lansariak haien hitzarmen kolektiboan zehaz-  
ten direnak izanen dira, Foru Lege honen 6. arti-  
kuluan finkatutako irizpide berberei jarraikiz.

2. Nafarroako gainerako Administrazio Publi-  
koen zerbitzuko lan-kontratatuaren lansariak Admi-  
nistratio Publiko bakoitzak bere aurrekontuetan  
ezartzen dituenak izanen dira, betiere Foru Lege  
honetako 6. artikuluan ezarritako irizpideei jarrai-  
tuz.

**8. artikulua.** Nafarroako Gobernuo kideak eta  
libreki izendaturiko aldi baterako langileak.

1. 2003ko ekitaldian, Nafarroako Gobernuo  
kideen ordainsariak foru lege honetako 6. artiku-  
luan ezarritako gehikuntza izanen dute, 2002an  
ezarritakoetatik abiatuta.

2. 2003ko ekitaldian, Nafarroako Gobernuaren  
eta Nafarroako administrazio publikoen eta haien  
erakunde autonomoen behin-behineko langile  
libreki izendatuen ordainsariak, foru lege honeta-  
ko 6. artikuluan ezarritako gehikuntza izanen dute,  
2002an ezarritakoetatik abiatuta.

## II. KAPITULUA Klase pasiboak

**9. artikulua.** Xedapen orokorrak.

1. 2003ko urtarrilaren 1etik aitzina, egunera-  
tzeko eskubidea duten Nafarroako administrazio  
publikoetako klase pasiboen pentsioak 100eko 2  
gehituko dira, foru lege honetako lehen xedapen  
gehigarriko 3. idatz-zatian xedatutakoa bete ondo-  
tik.

2. Halaber, aipatu klase pasiboari dagozkien  
famili laguntzek eta seme-alaba elbarrituengatik  
sariak ere arestian aipatu den gehikuntza izanen  
dute.

**10. artikulua.** Funtzionarioen pasiboen arabi-  
dea.

1. Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbi-  
tzuko Langileriaren Estatutuaren Testu Bateginak,  
abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru  
Dekretuaren bidez onetsitakoak, lehen xedapen

iragankorraren 3. idatz-zatian eta xedapen osagarrietan ezarritakoari jarraikiz, eskubide pasiboen araubidea martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legea baino lehen indarra zuten xedapenei lotuko zaie. Soldata erregulatzaileria zehazteko, aintzakitatzat hartuko dira funtzionarioek jasotako ordainsari handienak, aipatu foru legearen eta hura betetzeko emandako Ordainsarien Behin-behineko Erregelamenduaren aurreko sistemaren arabera, eta horiei Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko foru legeetan hurrengo urteetarako ezarritako ehunekoak gehituko zaizkie. Artikulu honetan aipatutakoa ez zaie ezarriko ez lan istripuaren ondoriozko ezgaitasunengatikoko pentsioei, ez lanbideko eritasunengatikoko pentsioei ere.

2. Artikulu honetan aipatua ez zaie ezarriko ez lan istripuaren ondoriozko ezgaitasun, ez lanbideko eritasunengatikoko pentsioei. Aurreko atalean aipatu xedapenen arabera, jubilazio eta pentsioen ondorioetarako zerbitzualdia zenbatzeko, funtzionarioek zerbitzuan egiazki egindako urteak besterik ez dira kontutan hartuko. Urte horien barnean sartuko dira Administrazio Publikoan egiazki egindako urteak, betiere behar den Administrazioak aitortuak, Foru Diputazioak 1981eko urriaren 29an hartutako Erabakiari eta apirilaren 14ko 21/1983 Foru Dekretuari jarraikiz.

Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko edo toki erakundeetako Administrazioaren montepioeren bati atxikitako funtzionarioen erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioen kasuan, foru lege honek indarra hartu ondoren jardunean hil edo erretiratuak badira, aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren erregimen ezberdinetan kotizatutako aldiak zenbatuko dira, eta atzerako eragina izanen dute, pentsioaren zio den egintza gertatutako egunetik aitzina, betiere aldi horiek aipatu montepioei kotizatutako beste batzuekin gainjartzen ez badira, honako hauek finkatzeko ondorioetarako soilik: eskubide pasiboetarako hartzeko zenbagarriak eta dagokion pentsioa kalkulatzeko kotizazio edo zerbitzu-urteengatikoko ehunekoak edo kuota.

Aurreko atalean aipatu funtzionarioek gauzaturako jubilazio-, alargun- eta umezurtz-pentsioetarako, inolaz ere ez dira hurrengoak zenbatuko: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren erregimen ezberdinetan kotizatutako aldiak, baldin eta aipatu aldiek, hala badagokio, beste batzuekin batuta, aipatu erregimenen ondoriozko pentsioa jasotzeko eskubidea sortu badute, salbuespen batekin, hots, SOVI delakoaren prestazioetarako eskubidea sortzeko balio duten aldi kotizatuak, zenbatu egingo baitira horiek.

Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearekin

bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo toki entitateek dituzten montepioetakoren baten babesean dauden funtzionarioek alargunpentsioa sortuz gero, bikotekide egonkorrek ere izanen dituzte eskubide pasibo horiek.

3. Artikulu honen 1. idatz-zatian xedatutakoa betez, eta Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileriaren Estatutuaren barnean dauden funtzionario publikoek 2003. urtean sortzen dituzten erretiro eta pentsioak finkatzeko, ondoko hau hartuko da kontuan:

a) Eskubide pasiboetan eragina duten lansari kontzeptuen zenbatekoak 2003. urteari dagozkionak izanen dira, hau da, 1983. urtekoei geroko Aurrekontuei buruzko Foru Legeek, hori barne, finkatutako gehikuntzak aplikatu ondoren sortzen direnak.

Horretarako, 2001erako soldata eta garestitze plusaren zenbatekoak lortu ahal izateko, jarraian dagoen taulan agertzen diren zifrei hurrengoak ezarri beharko zaizkie: foru lege honetako lehen xedapen gehigarrian xedatutakoa eta lege testu honetako 9. artikuluan ezarritako ehunekoak.

Maila	Soldata (Eurotan)	Garestitze-plusa (Eurotan)
1	9.924,71	7.329,58
2	8.164,55	6.953,62
3	7.268,22	6.762,46
4	6.908,19	6.685,84
5	6.604,60	6.621,16
6	6.324,88	6.561,30
7	6.059,80	6.655,04
8	5.875,01	6.862,49
9	5.607,52	6.805,30
10	5.450,03	6.647,08
11	5.308,27	6.564,17
12	5.003,76	6.384,39
13	4.796,13	6.282,60
14	4.417,32	6.089,31
15	4.068,48	5.810,52
16	3.855,76	5.685,24
17	3.504,15	5.560,22

Salbuespen gisa, lan istripu edo lanbideko eritasunaren ondoriozko ezgaitasunagatikoko jubilaziorik dagoenean, bai eta lan istripuz edo lanbideko eritasunez hil eta alargun edo umezurtzendako pentsioetan ere, funtzionarioak bere lanpostuagatik jubilatu edo hil aurreko urtean jasotako lansariak osatuko dute hartzekoa.

b) 1980ko urtarrilaren 29ko Parekatze Arautik sortutako ordainsari sistematik kanpo geratu ziren



udal funtzionarioentzat, horren bigarren xedapen gehigarriko bigarren lerroaldean emandako ahalmena oinarritzat hartuz, pasiboetan eragina duten ordainsari kontzeptuen zenbatekoa izanen da, funtzionario horientzako 1983ko zenbatekoari hurrengo urteetan gehitutakoak erantsiz, 2003rako aurreikusitakoa barne, ateratzen dena.

4. Funtzionarioek pentsio araubidea finantzatzen lagunduko dute 13/1983 Foru Legearen aurreko arauteria aplikatuz ateratzen den zenbatekoaz, ondorengo urteetako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeetan ezarritako pentsio igoreen portzentaiak erantsirik.

Horretarako, 1984ko urtarrilaren 1az geroztik sartutako funtzionarioak aipatu Foru Legea baino lehenago zeuden lanpostu edo mailetan sartuko dira, orain betetzen dituzten lanpostuen eta lehenagokoen arteko baliokidetzaz edo analogiaz.

5. Nafarroako Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langilariaren Estatutuaren Testu Bateginak, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitakoak, lehen xedapen iragankorraren 1. idatz-zatian xedatutakoarekin bat, 1984ko urtarrilaren 1a baino lehenago zeuden klase pasiboen pentsioentzat ez da aplikagarria izanen aipatu Langilariaren Estatutua; izan ere, ekitaldi bakoitzeko Nafarroako aurrekontuei buruzko foru legeetan ezarritako ehunekoa bakarrik gehituko zaie.

6. 2003ko urtarrilaren 1etik aitzina, gutxieneko erretiro-pentsioaren urteko zenbateko gordina Nafarroako administrazio publikoetako E mailako funtzionarioentzat 2003rako finkatuko den hasierako soldataren adinakoa izanen da. Atal honek xedatua bakarrik ezarriko zaie indarreko arautegiaren arabera eguneratzeko eskubidea duten pentsioei.

7. 2003ko urtarrilaren 1etik aitzina, gutxieneko alargun-pentsioaren urteko zenbateko gordina ekitaldi horretarako ezarriko den lanbide arteko gutxieneko soldataren adinakoa izanen da.

8. Artikulu honetako 7. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, Nafarroako Administrazio Publikoen Klase Pasiboen ezein Montepioen kargura emandako umezurtz-pentsioei, zein bere Erregelamenduen arabera, 1991ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 26ko 5/1991 Foru Legeko hemezortzigarren xedapen gehigarriak emandako idazkeraren arabera.

Beraz, gehikuntza horretatik at geratu da aipatu 5/1991 Foru Legeak ezarritako aldaketaren aurretik aplikatzen zen arautegiaren arabera

emandako zurtasun-pentsio oro, onuradunaren ezgaitasuna dela eta aitorturikoak salbu.

9. Foru Diputazioko funtzionarioen erretiroei eta pentsioei buruzko Erregelamenduko 8. artikuluko 3. idatz-zatian, eta udal funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Erregelamenduko 10. artikuluan aipatzen diren zurtasun-pentsioak eta udal montepio partikularretan ezaugarri berak dituzten zurtasun-pentsioak onartu egingen dira; betiere, hori eskuratzeko bete beharreko baldintzak bete beharko dira pentsioa sorrarazten duen pertsona edo, bestela, alargun pentsioa jasotzen duen ezkontidea edo bikotekide egonkorra hiltzen den egunean.

10. Nafarroako administrazio publikoetako montepioen alargun-pentsioak bateragarriak dira bai norberak egindako lanarengatik jasotako diru-sarrerekin bai jubilazio-pentsioarekin.

**11. artikulua.** Nafarroako administrazio publikoetako montepioetan sarturik ez dauden funtzionarioen eskubide pasiboak.

Kapitulu honetan xedatutakoa ez da aplikagarri izanen ondoren aipatzen diren funtzionarioentzat:

a) Nafarroako Foru Komunitatean, Estatuko Administrazioetik eginkizun eta zerbitzuak transferitzeari buruzko Errege Dekretuen ondorioz sartuta daudenentzat, horiek hasieran zeukaten gizarte segurantzako edo prebizio sistemarekin jarraituko baitute.

b) Gizarte Segurantzako araubide orokorrean afiliaturik egon eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoetan sartutakoentzat.

### III. KAPITULUA Beste xedapen batzuk

**12. artikulua.** Langileen aldi baterako kontratazioa.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, zerbitzuaren beharrak hala eraginda, beharrezkoak diren langileak administrazio edo lan araubidean aldi baterako kontratatzeko, Foru Lege honetan ezarritako aurrekontu-mugen barnean.

**13. artikulua.** Lanpostuak egokitzea.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio behar diren neurriak har ditzan, plantilla berregituratzeagatik edo eman beharreko zerbitzuengatik funtsik gabe gelditutako lanpostuak, bete gabeak ez direnak, berregokitzeak. Eginkizun aldaketak eta lekualdaketak, maila berean, salbuespen gisa baino ez dira egingen, eta Lehendakaritza, Justizia

eta Barne Departamentuak berak zuzenean eginen ditu.

**14. artikulua.** Foruzaingoa.

Nafarroako Gobernuak, 2003 urteko lan eskaintza publikoan, aurrekontu kontsignaziorik gabe, 50 foruzain lanpostu sartuko ditu.

**III. TITULUA**  
**Finantza eragiketak**

**I. kapitulua**  
**Abalak**

**15. artikulua.** Abalak.

Legeetan aurreikusitako kasuetan, Nafarroako Gobernuak abalak eman ahalko ditu, 12 milioi euro gehienez. Muga horren barnean, baimena ematen zaio Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuari abalak emateko ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuetarako, azaroaren 20ko 360/2000 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraikiz. Abal horien gehieneko zenbatekoa, proiektu bakoitzeko, 1.500.000 eurokoa izanen da.

**II. KAPITULUA**  
**Zorpetzea**

**16. artikulua.** Zor Publikoa jaulki edo maileguak nahiz kredituak ituntzeko baimena.

Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, merkatuaren ohiko baldintzetan maileguak edo kredituak itundu edo zor publikoa jaulkitzeko, muga hau ezarrita: 2003ko abenduaren 31ko saldo biziduna ezin izanen da izan 2003ko urtarrilaren 1ekoa baino handiagoa.

**IV. TITULUA**  
**Toki Entitateak**

**17. artikulua.** Nafarroako toki entitateek Nafarroako Ogasun Publikoaren tributuetan parte hartzeko funtsa.

Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontu ekitaldietarako ezartzen dituen abenduaren 30eko 24/2004 Foru Legearen 5. artikuluari puntu bat erantsi zaio, 4.a hain zuzen. Honela dio:

“2003ko ekitaldirako, aurreko guztiaz gainera, “Beste laguntza batzuk” izeneko atalean, kontzeptu berri bat sartuko da, “Udalkideen arabera konpentsazioa Udalentzat. Kargu publikoen finantzazioa” izeneko. 1.803.036 euroko zuzkidura

du. Zenbateko hori banatzeko, garatzeko emanen den arautegiari jarraikiko zaio”.

**18. artikulua.** Europako Batasuneko diruez finantzatzeko inbertsioen Plan Osagarria.

Ekitaldi ekonomikoan erabiltzen ez diren plan osagarriaren baliabideak plan berari gehituko zaizkio hurrengo ekitaldian.

**19. artikulua.** Elkarte tradizionalen inbertsioetarako diru laguntza eta onurak.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Nafarroako Ogasun Publikoaren kargura ezarritako dirulaguntzak eta gainerako onurak jaso ahal izanen dituzte Bardeetako Komunitateak eta Erronkari, Zaraitzu eta Aezkoako Batzarrek, beren organo eskudunek onesten dituzten inbertsioetarako.

**20. artikulua.** Udal Funtzionarioen Montepioen finantzaketa.

1. Nafarroako Gobernuak 5.513.637 euroko ekarpena egingen du, Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren barnean dauden Nafarroako toki entitateetako funtzionarioek sortzen dituzten pensioak finantzatzeko.

Zenbateko hori Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren kudeaketak 2002. urtean sortutako kostuen banaketan Udal Bakoitzari esleitutako kuotaren proportzio berean banatuko da.

2. Halaber, Nafarroako Gobernuak 2.989.206 euro banatuko ditu Iruña, Tuter eta Tafallako udalen artean, haien berariazko montepioen kudeaketak 2002ko ekitaldian sortutako kostuen arabera.

**21. artikulua.** Administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena.

“Toki-enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena” izeneko 210002-21400-4600-912900 kontusailak eta “Toki-enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena” izeneko 210002-21400-7600-912900 kontusailak finantzatzeko dituzte Nafarroako Gobernuak eta euren zerbitzuak elkartzen dituzten toki entitateek sinatu beharreko hitzarmeneko aurreikuspenak.

“Toki-enteen administrazio-berregituraketarako prozesuen sustapena” izeneko 210002-21400-7600-912900 kontusaila mankomunitateen egoitzak edo beren administrazio-zerbitzuak elkarrekin ematen dituzten entitate asoziatiboaren egoitzak eraiki eta hobetzeko erabili ahal izanen da. Lehenetsunak 2001-2004rako Toki Azpiegituren Hirurteko Planeko kalifikazioen hurrenkera errespetatuz ezarriko dira. Kalifikazio horiek planari

buruzko uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legean eta hori garatzen duen foru dekretuan aipatzen dira.

## V. TITULUA

### Aurrekontuen kudeaketa

**22. artikulua.** Nafarroako Parlamentuaren eta Kontuen Ganbararen aurrekontuen dotazioak.

Nafarroako Parlamentuaren, Kontuen Ganbararen eta Arartekoaren aurrekontuen dotazioak kasuko Mahaiak, Lehendakariak edo Arartekoak eskatu ahala libratuko dira, irmoki eta aldizka.

**23. artikulua.** Nafarroako Kontseilua.

Foru Komunitateko administrazioaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari buruzko araudi orokorraren mendean egonen da Nafarroako Kontseilua, bere independentzia organikoari eta funtzionalari kalterik egin gabe.

Era berean, haren jarduketa ekonomikoak eta aurrekontu-jarduketak Nafarroako Ogasuneko Kontu-hartzailletza Nagusiari lotuta egonen dira.

**24. artikulua.** Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontuaren dotazioa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinaturiko finantzaketa-hitzarmeneko transferentzia arruntak, oinarritzko finantzaketa xede dutenak, alde aurreko hiru hilekoetan libratuko dira oro har, behar handiagorik frogatzen ez bada behintzat.

Irakasleen ordainsari osagarriari aurre egiteko xedearekin Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinaturiko finantzaketa-hitzarmenean dauden transferentzia arruntak kopuru bereko lau epetan libratuko dira, kasuko hiru hilekoa hasi aurretik, Unibertsitateko Gerentziak gastuak justifikatu ondoren.

Irakaskuntza eta ikerketa proiektuei dagokieenez, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinaturiko finantzaketa-hitzarmenean dauden transferentzia arruntak bi epetan libratuko dira, alde aurretik haren Gerentziak hori eskatuta eta dagokien gastua egin dela dokumentu bidez frogatu ondoren.

Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin sinaturiko finantzaketa-hitzarmeneko kapital transferentziak alde aurretik haren Gerentziak hori eskatuta eta dagokien gastua egin dela dokumentu bidez frogatu ondoren.

**25. artikulua.** Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoaren aurrekontuaren dotazioak.

Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoari eginen zaizkion transferentzia arruntak

aurreko hilabetean libratuko dira, oro har, behar handiagoak justifikatzen ez badira, behintzat.

Kapital transferentziak libratuko dira Partzuergoaren Lehendakariak eskatzen dituen neurrian, xedeko gastua egin dela frogatuta.

**26. artikulua.** Herrietako kontsultategientzako dirulaguntzak.

547001 zenbakiko "Oinarritzko osasun laguntzako zentroak eraiki eta zaharbertzako transferentziak" kontusaileko kredituekin –herrietako osasun etxeak eraiki eta moldatzeko baita– horrelako gastuetarako ehuneko 100eko diru laguntza emanen da, baina diru laguntza horiek emateko Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak onetsiko dituen arau-oinarrietan ezarriko dituen baldintzetan eta mugak gainditu gabe betiere.

Herrietako kontsultategien ekipamenduaz Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua bera arduratuko da zuzenean.

**27. artikulua.** Organo transplanteen sustapena.

Giza-ehun eta organoen transplante eta dohaintza sustatzeko xedearekin erietxeek hartzen duten diru kopurua, erabiltzen ahalko da hala ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuetarako nola ondasun inbentariagarrietako gastuetarako, baldin eta zerikusia badute ematen den diruaren xedearekin.

**28. artikulua.** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurrekontuetako aldaketak.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zuzendari kudeatzaileak baimena ematen ahal du Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 46.2. artikuluan aipatzen diren aurrekontu-aldaketak egiteko, erakunde autonomo horren esparruan.

**29. artikulua.** Sindikatuak eta enpresaburuen elkartek.

Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuaren aurrekontuan sindikatuentzat egiten den gastu-kontsignazioa, guztien artean banatuko da, bakoitzak Foru Komunitatearen eremuan duen ordezkari-talaren arabera, eta 2002ko abenduaren 31n lorturiko emaitzei jarraikiz.

Halaber, "Nafarroako Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan dauden langile-sindikatuak, gizarte-ekonomiako elkarteei eta enpresaburuen elkarteei bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa" izeneko kontusaila aipatu entitateen artean

banatuko da, horietako bakoitzak Kontseilu horretan duen kide-kopuruaren arabera.

Era berean, "Sindikatuaren hauteskunde-prozesua jarraitzeko Batzordea osatzen duten sindikatuei bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa" izeneko kontusaila urriaren 3ko 182/1994 Foru Dekretuaren bidez sorturiko Batzorde horretan parte hartzen duten sindikatuen artean banatuko da, bertan duten kide-kopuruaren arabera.

**30. artikulua.** Gastu-konpromisoak etorkizuneko aurrekontuen kargura.

1. Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadurakoak, Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lanekoak eta Osasunekoak, dagozkien eskumeneren esparruan, beka eta diru laguntzak eman ditzakete ikertzaile eta artisten prestakuntza eta espezializaziorako, hezkuntza berezirako, Foru Komunitateko solaskideen egitaraurako, eta Nafarroarentzat interes berezia duten proiektuak egiteko. Xede horretarako, gastu-konpromisoak hartuko dituzte, dauden ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen kargura, baldin eta esandako konpromisoek gainditzen ez badituzte xede horretarako aurreko ekitaldian finkatzen diren zenbatekoak. Gastu-konpromiso berbera, muga horiexekin, hartzen ahal du Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak, enpresen lehiakortasunerako laguntzak –maiatzaren 23ko 208/1991 Foru Dekretuan arautuak–, eskualdez gaindiko elkarlan proiektuetarako dirulaguntzak emateko eta Estatuak eskualdatutako "Lantegi-eskolak eta lanbide-etxeak" programetako laguntzak –Lan eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren 2001eko azaroaren 14ko Aginduan arautuak– emateko, eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, eskola garraioa eta eskola-jantokien zerbitzua kontratatzeko.

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak gizarte-ekintzako alorrean prestatzeko jardueretarako laguntzak ematen ahalko ditu, horretarako etorkizuneko ekitaldien kargura konpromisoak hartuz, aurreko ekitaldian helburu horrekin kontsignaturiko kopuruak gainditu gabe betiere.

Jarraibidetzat harturik oinarrizko errenta arautzen duen 120/1999 Foru Dekretua, Gizarte Enplegu Babestua arautzen duen 130/1999 Foru Dekretua eta 242/2000 Foru Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira langileen laneko eta familiarako eginbeharrak batera eramateko eta jaiotzetasa sustatzeko zuzeneko diru laguntzak, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak gastu-konpromisoak hartzen ahalko ditu, etorkizuneko

neko ekitaldien kargura, betiere legezko xedapenetan ezarritako mugak gainditzen ez badituzte.

2. Nafarroako Gobernuak baimena ematen ahal du hurrengo ekitaldietara luzatuko diren gastu-konpromisoak hartzeko –Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak baimentzen dituenak baino gehiago–, bai eta transferentzia arruntak egiteko ere, Europako Batasuna finantzakidea den eta hiru urtetik goitiko plangintza izan behar duten plan, egitarau eta ekimenei aurre egiteko.

3. Nafarroako Gobernuak dagokion ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen konturako gastu-konpromisoak hartzen ahalko ditu, martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen eta martxoaren 9ko 95/1992 Foru Dekretuaren babesean laguntzen diren garapenerako lankidetzako proiektuak finantzatzeko, baldin eta, bideragarriak izateko, ekitaldi batetik goitiko baina hiru urtetik beherako plangintza ezinbestekoa baldin bada.

4. Nafarroako Gobernuak dagokion ekitaldiaren ondorengo aurrekontuen konturako gastu-konpromisoak hartzen ahalko ditu, garraio-zerbitzu publikoen titular diren enpresei ordainak emateko.

5. 2003tik aurrera eta administrazioaren arloa eta ekonomi eta finantzen kudeaketaren arloa berregituratzeko prozesuak bukatzen diren urtera bitarte, Toki Administrazioeko Departamentuak diru laguntza arruntak ematen ahalko dizkie toki-entitateei, helburu horietarako, gastu konpromisoak hartuz dagokionaren hurrengo hiru ekitaldietarako. Gastu-konpromiso horiek ezin izanen dituzte gainditu Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzetarako finkatzen dituen mugak.

6. Herrietako kontsultategiak eraiki eta zaharberitzeko diru laguntzak direla-eta –547001 proiektuko "Lehen osasun laguntzako zentroak eraiki eta zaharberitzeko transferentziak" kontusailan bilduak–, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak gastu-konpromisoak hartzen ahalko ditu, dagokion ekitaldiaren hurrengo aurrekontuen kontura, baldin eta urteko konpromiso horiek guztiek aurreko ekitaldian xede horretarako finkatu den zenbatekoa gainditzen ez badute.

7. Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzean finkatzen dituen mugen barruan, Industria eta Teknologia, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak hurrengo ekitaldien konturako gastu-konpromisoak hartzen ahalko ditu, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeak baimenduriko mugetatik haratago, enpresek I+G proiektuak finantzatzeko

hizartzen dituzten kreditu edo maileguen korrituetan hobariak emateko.

**31. artikulua.** Europako elkarteko programen aurrekontuetako aldaketak.

Nafarroako Gobernuak, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak proposaturik, aurrekontuetan behar diren aldaketak egiteko baimena ematen ahal du, ekitaldian zehar Europako Batasunak kofinantzatutako programa eta proiektuak ahalik eta hobekien burutzeko, Europako Batzordeak hasierako dokumentuan onetsitakoari edo ondoren Jarraipen Batzordeek edo Europako Batzordeak berak eginiko aldaketei jarraituz. Aurrekontu-aldaketa horiek gastuen egoeretan agertzen diren edozein motatako kredituen bidez finantzatu beharko dira.

**32. artikulua.** Oteiza Fundazioaren Museo Etxea.

"Oteiza Fundazioaren Museo Etxea. Inbertsio eta gastuak" izeneko kontusailari aipatu fundazioarekin zerikusirik duen edozein gastu aplikatzen ahal zaio.

**33. artikulua.** Hauteskunde prozesuak.

"Hauteskunde prozesuak" izeneko kontusailari edozein gastu aplikatzen ahaliko zaio, hau da, haiek burutzeko beharrezkoak diren lan eta inbertsioek sorturiko edozein gastu.

**34. artikulua.** Programa, ekinbide, proiektu eta ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF).

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio programa, ekimen, proiektu edo ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF) garatzearen ondorioz sor daitezkeen gastuak zuzen aplikatzeko beharrezkoak diren aurrekontu-sailak paratu edo/eta gehitzeko, sartzen diren aurrekontu-programa eta gastuen izaera edozein dela ere.

Finantzaketa, betiere, hurrengo kontusailaren kargura egingen da: 116002-11630-6092-134102, "Programa, ekinbide, proiektu eta ekintza komunitario berriak (FEDER-EGF)" izenekoa.

**35. artikulua.** Bermeak ematea.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen diru laguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeari buruzko araubide orokorra ezartzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legearen 18.2 artikuluan ezarritako bermeak ez dira aplikatuko Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta INAFRE fundazioak etengabeko prestakuntzarako sinatutako Hitzarmenaren ondoriozko jardueretan parte hartzen duten prestakuntza entitateen kasuan.

**36. artikulua.** Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak.

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariaren ohiko jardunerako behar diren gastu guztiak kutxa finkoko aurrerakinekin edo, hala bada, justifikatu beharreko ordain-aginduekin ordainduko dira.

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak arestian esandako gastu eta ordainketak baimentzen ahalko ditu eta Ekonomia eta Europako Aferen zuzendari nagusiaren aurreko baimena beharko du 6.010 euro baino gehiagokoak direntzako.

**37. artikulua.** Ikerketa proiektuak.

Osasun Departamentuak sustaturiko osasun zientzien arloko ikerketa proiektuek haren inbertsio berekitzat joko dira, eta ez zaie aplikatuko dirulaguntzak eman, kudeatu eta kontrolatzeko araubide orokorra ezartzen duen ekainaren 9ko 8/1997 Foru Legea.

Aipaturiko proiektuak deialdi publikoaren ondorioz horretarako eskaera egiten dutenen artetik hautatuak izanen dira, batzorde tekniko batek proposaturik. Batzorde horren osaketa aipaturiko deialdian zehaztuko da.

**38. artikulua.** Zerbitzuen ohiko funtzionamendurako gastu txikiak.

Foru Komunitateko administraziozuzendari nagusiek, idazkari teknikoek eta zerbitzu-zuzendariak, kasuan kasuko administrazio-unitatearen funtzionamendurako beharrezko gertatzen diren gastuak baimentzen ahalko dituzte; betiere, aurrekontuetan kontsignazioa izanik, horien zenbatekoa ez bada 12.020 euro baino altuagoa –zuzendari nagusi eta idazkari teknikoen kasuan–, eta 3.005 euro baino altuagoa –zerbitzu-zuzendarien kasuan–. Ulertuko da gaikuntza horrek balioko duela, baita ere, funtzionamendu horretarako beharrezkoak diren horniduretarako, salbu eta Ekonomi eta Ogasun Departamentuak modu zentralizatuan atenditzen dituenetarako et, urriaren 19ko 307/1998 Foru Dekretuaren bidez transferitutako eskumenaren ondoriozko kontratuetarako.

**39. artikulua.** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko gastu txikiak.

Osasun etxeetako zuzendariak hainbesteko kopuru bat edukiko dute, hilean, beren osasun etxeetako gastu ustekabeko, premiazko edo zehatzei aurre egin ahal izateko, Lehen Osasun Laguntzako zuzendariak ezarriko du hainbesteko horrek zenbat jotzen duen.

**40. artikulua.** Jabari pribatuko ondasunak ematea.

Nafarroako Ondareari buruzko irailaren 27ko 17/1985 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusiriko ondorioetarako, baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari jabari pribatuko ondasunak, eta bereziki, Nafarroako Gobernuarenak diren akzioak Foru Komunitateko sozietate publikoei edo kapitalean Foru Komunitatearen partaidetza duten merkataritza sozietateei emateko, aipatu aginduan ezarritako gehieneko kopurua gaindituta ere.

**41. artikulua.** Zenbait ondasunen besterentze zuzena.

Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legearen 271.1 artikulua aipatzen dituen ondasunak zuzenean besterentzen ahalko dizkie babes publikoko araubideren bateko etxebizitzak sustatzen dituzten irabazi asmorik gabeko entitateei -laguntza arlokoak, sozialak edo sindikalak- eta haiei loturiko sozietateei, baldin eta frogatzen badute delako sustapen horren bideragarritasuna bermatzeko esperientzia eta bitartekoak badituztela. Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu babes publikoko erregimen horretako etxebizitzak hartzen dituztenek behar diren baldintzak betetzen dituztela bermatzeko.

**42. artikulua.** Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko 8/1988 Foru Legearen aldaketa.

Foru Lege honek indarra hartzen duenetik ondorioak izanen dituztela, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen ondoko artikulua honela geldituko dira:

BAT. 41.5. artikulua.

"5. Aurreko 2. idatz-zatian xedatua gorabehera, tokian tokiko aurrekontuetako kredituak kudeatzeko eskumena duten erakunde autonomoetako zuzendari nagusiek eta kontseilariak ondoko gastu hauetarako konpromisoak hartzen ahalko dituzte:

a) Langileak aldi baterako kontratatzekeo gastuak eta, urte naturalaz besteko aldiak hartzearen ondorioz, bi aurrekontu ekitalditan eragina duten urteroko diru laguntza arruntetatik heldu direnak.

b) Gainerako beste edozein gastu, bederatzita milioi eurokoa baino handiagoa ez bada eta baimena jasotzen duen ekitaldiaren ondoko baino lehen betetzen bada."

Bl. 114. artikulua.

"114. artikulua. 1. Nafarroako kontu orokorren egitura, edukia, egiteko arauak eta, kasua bada, haien agregazio edo sendotzea egiteko irizpideak eta irispina Ekonomia eta Ogasun kontseilariak zehaztuko ditu, Kontu-hartzaitza Nagusiak hala proposatuta. Nolanahi ere, aurreko artikuluan aipatu ente eta sozietateen gaineko informazioa emanen da, alderdi hauei buruzkoa:

a) Ekonomia, finantza eta ondare egoera.

b) Ekitaldiko ekonomi eta ondare emaitzak.

c) Foru Lege honen 113. artikulua a) eta b) letretan deskribaturiko enteen aurrekontuen ekuzioa eta likidazioa.

2. Nafarroako kontu orokorreko informazioa gehitzen ahalko zaie foru lege honen 113. artikuluan definiturik ez dauden enteei buruz, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak hala erabakita, kontuan harturik Foru Komunitateko Administrazioak horietan edo horien finantzazioan parte hartzen duen, ekonomia eta finantza aldetik duten garrantzia eta horiei buruzko araudi berariazkoa".

## VI. TITULUA Kontratazioa

**43. artikulua.** Kontratazioaren arloko eskurantzak.

1. Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Kontratazio eta Aseguru Ataleko buruari ahalmena ematen zaio 60.101 eurotik beherako hornidura kontratuak egiteko, betiere kontratazio hori beste departamentu edo erakunde autonomo bati transferitu ez bazaio.

Kontratazio eta Aseguru Ataleko titularra ez baldin badago, gaixorik badago edo bere postua hutsik badago, eskumena Ekonomi eta Ogasun Departamentuko Ondare Zerbitzuko zuzendariak erabiliko du.

2. Kontratazio eta Aseguru atalburuak bulegoak hornitzeko kontratu etarako ahalmena Hornidura Bulegoko buruari eskuordetzen ahalko dio.

3. Aurreko idatz-zatian aipaturiko kontratu-ahalmenak esleituko dira Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratu et buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 12.1.a) artikulua kontseilarietara ematen dien eskumen orokorraren kalterik gabe. Kontseilarietara edozein unetan kasuan kasuko kontratua beraiek sinatzea eskatzen ahalko dute.

4. Garraio zerbitzuak kontratatzekeo eta garraio-jarduerak xede dituzten diru laguntzak emateko, Herrilan, Garraio eta Komunikazio

Departamentuko Garraio Zerbitzuak aldeko txostena eman beharko du aurretik, derrigorrez.

5. Nafarroako Foru Komunitateak deitu beharreko hauteskunde prozesuen inguruko hornidurak kontratatzeako organoa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua izanen da.

**44. artikulua.** Erakunde autonomo jakin batzuetako hornidura kontratuak.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-ren menpeko zentroek produktu freskoak erosten ahalko dituzte, hornitzaileei eskaintzak eskatuz hamabostean behin, urteko esleipenera jo beharrik gabe.

2. Nafarroako Gizarte Ongizate Institutuaren menpeko zentroek produktu freskoak erosten ahalko dituzte hornitzaileei bi hilabete behin eskaintzak eskatuz, urteko esleipenera jo beharrik gabe.

45. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuak buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea.

Foru Lege honek indarra hartzen duenetik aitzina, Nafarroako administrazio publikoetako kontratuak buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legearen zenbait artikuluren edukia aldatu beharko da, honela geldituko baitira:

BAT. 11.4. artikulua

"4. "Kontratuaren prezioaren ordainketa geroztatu debekatzen da, non ordainketa sistema ez den ezartzen finantza errentamenduaren bidez edo erosteko aukera duen errentamendu sistemaren bidez, edo foru lege batek espresuki baimentzen duenean.

Bl. 11. artikuluan 6. idatz-zatia erantsi da.

"6. Ordainketa finantza-errentaren bidez edo erosteko aukera duen errentamendu sistemaren bidez ezarria duten kontratuak ez da aplikatuko artikuluan honen 5. idatz-zatian ezarritakoa; kasu horretan ordainketarako gehieneko epea lau urtekoa izanen da, kontratuaren adjudikaziotik hasita, epe luzeagorik ez bada adosten, horretarako Nafarroako Gobernuak baimena eman ondotik".

HIRU. 18.1. artikulua

"1. Foru lege honen ondorioetarako, hornidura kontratuak dira produktu edo ondasun higigarriak erosi, finantza-errentan hartu, errentan hartu -erosteko aukerarekin zein gabe- edo eskuratzea xede dutenak, jabetza gorpuzgabei eta balore negoziagarriari dagozkienak izan ezik, horiek kasu-kasu aplikatzea den ondare legediaren bidez arautuko baitira".

LAU. 55. artikulua. Bi lerrokada gehitzen dira:

"Obren proiektua egiteko eta horien zuzendaritza fakultatiborako kontratuak batera tramitatzea erabakitzen denetan, ez da zilegi izanen gastua fiskalizatzea, onestea eta horren kontura konpromisorik hartzea, zuzendaritza fakultatiboari dago-kionez, harik eta hautaturiko proiektuan oinarritutako obra egitea erabakitzen den arte. Baldintza hori administrazio klausula partikularren plieguetan jasoko da.

Aurreko lerrokadan xedaturikoaren ondorioz, obraren zuzendaritza fakultatiborako kontratuaren esleipena gauzatuko da proiektu hautatuari jarraituz obra egiteko esleipena egiten denean, eta, harekin batera, horretarako gastua egiteko baimena ere emanen da. Une horretara arte ez da inolako eskubiderik sortuko proposamen hautatua aurkeztu duenaren alde."

BOST. 80.2. artikulua

"2. Obra kontratuak, zenbatekoa 60.101,21 euro baino handiagoa ez denean edo, toki entitateen kasuan, euren aurrekontuko baliabide arruntan ehuneko bost baino handiagoa ez denean, betiere ehuneko hori aplikatuz 60.101,21 euro baino gehiago ateratzen ez bada."

SEI. 80.3.a) artikulua.

"a) Lehenbiziko aldiz ezartzeko gastuen aurrekontua 30.050,61 eurokoa edo gutxiagokoa izatea aurreikusten denean eta iraupena bost urtetik beherakoa denean. Toki entitateetan, kantitate-muga izanen da aurrekontuko baliabide arruntan 100eko 5ekoa, betiere ehuneko hori aplikatuz 30.050,61 euro baino handiagoa ez den kopuru bat lortzen bada."

ZAZPI. 80.4.a) artikulua

"a) 30.050,61 euro edo gutxiagoko aurrekontua duten kontratuak; muga hori, 18.2.c) artikuluan dauden kasuetarako, 48.080,97 eurora arte igotzen da, eta 60.101,01 eurora arte produktu kontsumigarri, galkor edo erraz hondatzekoak direnak erosteko kasuetarako. Toki entitateen kasuan, tokiko aurrekontuaren baliabide arruntan 100eko 5a baino handiagoa ez den aurrekontua duten kontratuak, ehuneko hori aplikatuta ateratzen den zenbatekoa arestian adierazitakoak baino handiagoa ez bada."

ZORTZI. 80.5.a) artikulua.

"a) Aurrekontua 30.050,61 eurokoa edo, toki entitateen kasuan, aurrekontuaren baliabide arruntan 100eko 5a baino handiagoa ez denean, ehuneko hori aplikatuta ateratzen den zenbatekoa ez bada 30.050,61 eurotik gorakoa."

**BEDERATZI. 81.3. artikulua**

"3. 12.020,24 euro edo gutxiagoko prezioa duten kontratuetan eskatuko den agiri bakarria faktura izanen da."

**HAMAR. 82.1.a) artikulua**

"a) Aurrekontua 120.202,42 euro baino gutxiagokoa duten obra-kontratuetan."

**HAMAIIKA. 82.1.b) artikulua**

"b) Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratuetan, lehenbiziko aldiz ezartzeko gastuen aurrekontua 60.101,21 eurotik beherakoa izatea aurreikusiten denean eta iraupena bost urtetik beherakoa denean."

**HAMABI. 82.1.c) artikulua**

"c) Gainerako administrazio kontratuetan, aurrekontua 60.101,21 eurotik beherakoa denean."

**HAMAHIRU.** Xedapen gehigarrietan beste bat gehitu da, hamabosgarrena hain zuzen.

"Hamabosgarren xedapen gehigarria. Hornitzaileak hautatzeko kontratu markoa.

1.- Produktu edo ondasun jakin batzuen hornitzaileak hautatzea xede duen kontratu markoaren tramitazioa ondoko idatz-zatietan ezarritakoari lotuko zaio.

2.- Hornitzaileen hautaketa foru lege honetan ezarritako arau orokorren arabera egingen da. Hala eta guztiz ere, ez da gastua fiskalizatuko, ez onetsiko, ez eta hark sorturiko konpromisorik hartuko ere, harik eta xedapen honetako laugarren idatz-zatiaren arabera behar diren adjudikazioak egin arte, eta ez da eratu behar izanen ez behin-behineko ez behin betiko bermerik ere. Era berean ez da inolako bermerik eskatuko, ez behin-behinekorik, ez behin betikorik.

3.- Kontratu markoaren adjudikazioak, produktu nahiz ondasun mota bakoitzerako, hautatutako hornitzailea edo hornitzaileak zehaztuko ditu, bai eta produktu nahiz ondasun horiek eskuratzeko gehieneko prezioak ere.

4.- Hornitzailea hautatzeko kontratu marko baten ondorioz egingen diren kontratu-adjudikazioak publikitaterik gabe negoziaturiko prozedurari jarraituko diote. Betiere, honako berezitasun hauek hartu beharko dira kontuan:

a) Hiru hornitzaile edo gehiago hautatu badira, hautatu diren enpresatarik hiruri, gutxienez, eskatu beharko zaie eskaintza. Bestela, eskaintza enpresa guztiei eskatuko zaie. Betebehar hori betetzerik ez badago, arrazoitu egin beharko da.

b) Kontratazio organoaren erabakiak gastuaren onespina eta kontratuaren adjudikazioa jasoko ditu, horrelakorik badago.

c) Kontratuaren oinarriko baldintzak soilik prestatu beharko dira administrazio klausula partikularren pleguan, hornitzailea hautatzeko prozeduraren hasierako erabakiaren bidez onetsitako hartan, ezarritakoari baldintza osagarriak ezartzen bazaizkio edo horretarako ituna egingen bada.

d) Hornitzailea hautatzeko lizitazioaren hasierako erabakiaren bidez onetsitako agindu teknikoaren pleguari jarraikiz egingen da kontratua.

e) Kontratua formalizatzerik ez da eskatuko.

5. Nafarroako toki entitateak kontratu markoari atxikitzen ahalko zaizkio, hura formalizatu duen Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuarekin hitzarmena egingez, kontratazioarako dituzten eskumenak mantenduta betiere".

**Xedapen gehigarriak**

**Lehena.** 1. 2002. urtean, Nafarroan Kontsumoko Prezioen egiazko Indizea ehuneko bitik gorakoa bada, alde hori zuzenean aplikatuko da Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langile jardunekoaren ordainsarrietan; kontsolidatu egingen da eta 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu eragin ekonomikoak.

2. Halaber, paga bakarria ordainduko da, kontsolidata ezina, aipatu desbideraketaren ehunekoaren parekoa; hori kalkulatzeko, 2002. urtean sortutako ordainsari guztiak hartuko dira oinarri.

3. Klase pasiboen pentsioei ere aplikatuko zaie aurreko bi puntuetan ezarritakoa, eta eguneratzeko eskubidea izanen dute.

**Bigarrena.** 1. 2003. urtean, Nafarroan Kontsumoko Prezioen egiazko Indizea lege honen 6. artikuluan aurreikusitakoa baino handiagoa bada (% 2koa), alde hori zuzenean aplikatuko da Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko langile jardunekoaren ordainsarrietan; kontsolidatu egingen da eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu eragin ekonomikoak.

2. Halaber, paga bakarria ordainduko da, kontsolidata ezina, aipatu desbideraketaren ehunekoaren parekoa; hori kalkulatzeko, 2003. urtean sortutako ordainsari guztiak hartuko dira oinarri.

3. Klase pasiboen pentsioei ere aplikatuko zaie aurreko bi puntuetan ezarritakoa, eta eguneratzeko eskubidea izanen dute.

**Hirugarrena.** Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio, Ekonomi eta Ogasun Departamen-



tuaren bidez, salbuespen gisa eta Toki Administrazio Departamentuak txostena eman ondotik, Udal eta Kontzejuei ondokoak emateko:

a) Tributuetan parte hartzeko fondoaren ohiko transferentzietan dagozkien aurrerakinak, hiruhileko baten zenbatekoaren kontura, ekitaldi ekonomikoaren hurrengo hiruhilekoan itzuli beharrekoak.

Aurrezki garbia, defizita eta zor maila neurtu eta toki entitatearen finantza eta ekonomi egoera ikusita, ohiz kanpoko neurriak komenigarritzat joko balira, konturako aurrerakina, gehienez ere, bi hiruhilekoari dagokion zenbatekoaren adinakoa izan liteke.

b) Banaketa kontuan jasota egon eta muga iragan duten zorren ordainketa geroratzea.

Aurrerakin eta gerorapen horiek bakar-bakarrik diruzaintzan atezu larria gertatuz gero emanen dira eta, betiere, entitate eskatzaileak katastro berriak aplikaturik edo landa eta hiri katastroaren aberastasuna gaurkotzeari buruzko Hitzarmenak sinatuta edukiz gero.

Entitate eskatzailearen egoera ekonomiko-finantzarioa nolakoa den ikusita erabakiko du Ekonomi eta Ogasun kontseilariak zein korritu tasa aplikatu.

**Laugarrena.** 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera, Nafarroako Foru Komunitateko departamentuak eta, kasua bada, haren erakunde autonomoak eskudunak izanen dira beren jarduketa eremuetan sortzen diren ondare erantzukizuneko prozedurak tramitzeko eta ebazteko. Berariaz uzten dira indarrik gabe arlo honetan Ekonomia eta Ogasun kontseilariari Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko aurreko legeetan esleitu zitzaizkion eskumenak.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ondare erantzukizuneko prozeduretan eskumena erakunde autonomo horretako zuzendari kudeatzaileari dagokio.

**Bosgarrena.** Administrazio Kontratazioaren Batzordeko kideek eta haren menpeko Arbitraje Batzordeko kideek, bilkurak joateagatik eta txosten eta irizpenak prestatzeagatik, jaso beharreko diru-sariak erregelamendu bidez ezarriko dira.

**Seigarrena.** Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002 eta 2004 aurrekontu ekitaldietarako ezartzen dituen abenduaren 30eko 24/2004 Foru Legearen 5. artikulua 2. puntua aldatzen da. Honela geldituko da:

"Kapital transferentzietan dagozkien kontsignazioa 46.560.293 eurokoa izanen da 2002. urterako. Horietatik 42.653.714 euro Hirurteko Planari dagozkio eta 3.906.579 euro Plan Bereziari. 46.393.328 euro 2003. urterako. Horietatik 42.486.748 euro Hirurteko Planari dagozkio eta 3.906.579 euro Plan Bereziari. 53.976.335 euro 2004. urterako. Horietatik 50.069.756 euro Hirurteko Planari dagozkio eta 3.906.579 euro Plan Bereziari.

Kapital transferentzietan dagozkien kontsignazioa kontzeptuak sailkatuko da Bigarren Xedapen Gehigarrian aipatutakoaren arabera.

Saririk gabeko zolatze lanei dagokienez, Toki Azpiegituren 2001-2003 Hirurteko Planen finantzatu gabe gelditu ziren obrak finantzatu dira, hornidura eta saneamendu sareak berritzeko obrei loturik ez badaude. Zolatze obren kalifikazioen sailkapenaren arabera lehenetsiko dira.

2004. urteko plana hauetan aipatzen diren irizpideei jarraikiz egin eta banatuko da: uztailaren 3ko 7/2000 Foru Legea, toki azpiegituren 2001-2003 hirurteko planari buruzkoa; azaroaren 20ko 367/2000 Foru Dekretua, arestian aipatu foru legea garatzen duen Erregelamendua onesten duena; eta uztailaren 5eko 16/2001 Foru Legea, 2001-2003rako toki azpiegituren plan bereziari buruzkoa.

Foru Lege hau onesten denean, Nafarroako Gobernuak 2004. urteko obra plana onesten ahaliko du".

**Zazpigarrena.** Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren zenbatekoa eta banatzeko formula 2002 eta 2004 aurrekontu ekitaldietarako ezartzen dituen abenduaren 30eko 24/2004 Foru Legearen bigarren xedapen gehigarria aldatzen da. Honela geldituko da.

"Bigarrena.- 2001-2004 urteetan, kapital transferentzietarako finkatu den diru-kopurua, eurotan, honako hau da, kontzeptuz kontzeptuz:

	2001		2002 Euroak	2003 Euroak	2004 Euroak	Guztira, 2001-2004 Euroak
	Pta., milakotan	Euroak				
A) Plan zuzentzaileak						
Azterlanak	10.100	60.702	60.702	60.702	60.102	242.208
Goi presioko ur hornidura	1.177.660	7.077.879	7.077.879	7.077.879	8.137.704	29.371.341
Depuración y Saneamiento de ríos	707.000	4.249.156	4.249.156	4.249.156	3.906.579	16.654.047
Hondakin solidoak						
Tratamendua	126.250	758.778	758.778	2.797.159	3.606.073	7.920.788
Bilketa	186.850	1.122.991	1.122.991	846.797	1.839.098	4.931.877
Iruñerriko Mankomunitatearekiko hitzarmena	579.600	3.483.466	5.891.842	6	2.137.975	11.513.289
Berarizko hondakinak	-	-	-	1.824.709	300.501	2.125.210
Guztira, plan zuzentzaileetan	2.787.460	16.752.972	19.161.348	16.856.408	19.988.032	72.758.760
B) Toki programazioko inbertsioak						
Ur hornidura, plan zuzentzaileetan sartu gabekoa	15.150	91.053	91.053	91.053	102.173	375.332
Ur hornidurako eta saneamenduko sare lokalak	1.313.000	7.891.289	7.891.289	7.891.289	7.813.158	31.487.025
Elektrifikazioak	25.250	151.756	151.756	151.756	144.243	599.511
Herri argiteria	227.250	1.365.800	1.365.800	1.365.800	1.562.632	5.660.032
Zoladurak	883.750	5.311.444	5.311.444	5.311.444	17.526.577	33.460.909
Sarerik gabeko zoladurak	-	-	-	2.137.981	-	2.137.981
Udal eraikinak	202.000	1.214.044	1.214.044	1.214.044	1.412.379	5.054.511
Kanposantuak	101.000	607.022	607.022	607.022	558.942	2.380.008
Toki bideak	101.000	607.022	607.022	607.022	691.164	2.512.230
Guztira, toki programazioak	2.868.400	17.239.430	17.239.430	19.377.411	29.811.268	83.667.539
C) Toki garapena	40.400	242.809	242.809	242.809	270.450	998.877
D) Plan gehigarria 4050	1	6	6	0	6	18
E) Berriazko plana	1.000.000	6.010.121	6.010.121	6.010.121	-	18.030.363
F) Plan berezia	350.000	2.103.542	3.906.579	3.906.579	3.906.579	13.823.279
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.046.261</b>	<b>42.348.880</b>	<b>46.560.293</b>	<b>46.393.328</b>	<b>53.976.335</b>	<b>189.278.836</b>

**Zortzigarrena.** Hauek dira 2003ko ekitaldian aplikatuko diren saneamendu kanonaren tarifak:

a) Etxeko isurkinak: 0,19 euro/metro kubikoko.

b) Etxekoak ez diren isurkinak: 0,24 euro/metro kubikoko. Beharrezkoa bada, karga kutsatzailearen indize zuzentzailea gehituko da. Arazketarako instalazioak kofinantzatzen direnean, Toki Administrazioiko Departamentuak koefiziente zuzentzaile bat jartzen ahalko du tarifyan; horren aplikazioa hitzarmenez eginen da.

Instalazio pribatuetatik datozen lohiei, baldin eta onartzen badira Nafarroako ibaien saneamendurako plan zuzentzaileari atxikitako hondakinuren araztegietan, tarifa bat aplikatuko zaie trata-

tuak izateagatik; hain zuzen ere, 5,18 euro metro kubikoko.

Aurreko zergei Balio Erantsiaren gaineko Zerga gehituko zaie.

**Bederatzigarrena.** Funtzionarioen Eskubide Pasiboen Erregelamenduaren 16. artikuluko a) letra aldatzen da. Erregelamendu hori Foru Kontseilu Administrazioak 1947ko maiatzaren 31n harturiko Erabakiaren bidez onetsi zen. Honela gedituko da atal hori:

"a) Idazkariei eta fakultatiboiei (sendagileak, praktikanteak, albaitariak eta botikariak) dagokien defizita kalkulatzeko, defizit hori igortzen den urteko otsailaren 1ean ofizialki deklaraturiko biztanleri

datuak hartuko dira aintzat, eroldako datuak berrikusita"

**Hamargarrena.** Abenduaren 21eko 14/1992 Foru Legearen F9 letrako c) atala aldatzen da. Atal hori abenduaren 9ko 22/1994 Foru Legearen bidez erantsi zitzaion. Honela geldituko da:

"c) Norbanakoendako diru laguntzak, famili dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldataren halako 1,7tik beherakoak dituzten erosleentzat, betiere etxebizitzaren azalera erabilgarria ehun eta hoge metro karratutik gorakoa ez bada. Diruz lagunduko den gehieneko azalera erabilgarria lau-rogeita hamar metro karratukoa da."

**Hamaikagarrena.** Nafarroako Foru Komunitateko eta haren erakunde autonomoetako Tasa eta Prezio Publikoek buruzko martxoaren 27ko 7/2001 Foru Legearen 87. artikulua aldatzen da. Horren ondorioz, 1. tarifa, ehiza lizentziari dagokiona, 66,65 eurotan finkatzen da, bost urtekoa ateraz gero, eta 13,33 eurokoa urte baterakoa.

**Hamabigarrena.** Bat.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko irakasleek prestakuntza jardueraren batean irakasle gisa parte hartzen badute, dela Hezkuntza eta Kultura Departamentuak urtero prestatzen duen Irakasleak Prestatzeko Planean biltzen direnak, dela Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiak edo Irakasleentzako Laguntza Zentroek zuzenean antolatutako, diru-ordain bat jasotzen ahalko dute, betiere jarduera hori kasuan kasuko lanalditik kanpora egiten badute. Diru-ordain hauek izanen dituzte:

a)-Aurrez aurreko prestakuntza

1.- Ponentzia bakoitzeko, hots, aditu bat prestakuntza jarduera batean ematen duen eskola ordu bakoitzeko, 54,21 euro ordainduko dira, gehienez.

2.-Konferentzia bakoitzeko, hots, aditu batek zientzia, teknika edo gizarte gai interesgarri bati buruz ematen duen jendaurreko hitzaldia, 90 minututik gorakoa, 331 euro ordainduko dira gehienez.

b)-Urrutiko prestakuntza

1.- Urrutiko prestakuntza jardueretan koordinazio telematiko gisa parte hartzeagatik 960 euroko ordaina emanen da gehienez. Gainera, tutore bakoitzeko, seigarrenetik aurrera, 90 euroko ordaina emanen da.

2.- Urrutiko prestakuntza jardueretan tutore telematiko gisa parte hartzeagatik 43 euroko ordaina emanen da gehienez tutoretzapeko ikasle bakoitzeko.

Bi.- Aurreko atalean adierazitakoa ez zaie aplikatuko Irakasleentzako Laguntza Zentroetan edo irakaskuntza ez-unibertsitarioetako prestakuntza jarduerak diseinatu eta garatzen dituzten zerbitzuetan destinoa duten langileei.

Hiru.- Aurreko ataletan aipatu diren dirutzak urtero berrituko dira Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langile funtzionario eta estatutupekoen soldatetarako ezartzen den gehikuntzarekin.

Laugarrena.- Prestakuntza jardueretara joateko kilometroei dagokien ordain-saria jasotzen ahalko dute, bakar-bakarrik, hezkuntza administrazioak, Hezkuntza zuzendari nagusiaren Ebazpenaren bidez, espresuki aginduta joan behar duten irakasleek.

**Hamahirugarrena.** Foru Lege honek indarra hartzen duen egunean lanpostua jabetzan duten osasun arloko udal funtzionario titularrek aukera izango dute Foru Komunitateko Administrazioa eskualdatu izateko, Nafarroako Administrazioko funtzionario gisa tokiko osasunaren zerbitzuan aritzeko. Horretarako Foru Komunitateko Administrazioaren Erregistro Nagusian idazkia aurkeztu beharko dute, Foru Lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik 30 egun naturaleko epean.

**Hamalauagarrena.** Nafarroako Gobernuak, bere ekimenez edo kasuko udal edo kontzejuak eskatuta, elkarren ondoko osasun eskualde oinarrikoetan diren distritu eta ataletako atxikipean aldatzen ahalko ditu, hori egitea aholkatzen duten osasun-laguntzazko inguruabarrak gertatzen badira.

Edozein kasutan ere, aldatzeko espedientean agertuko da entzunaldia eman zaiola oinarriko eskualde horietako ordezkari organoari, horrelakorik badago, eta lurralde banaketa berriaren ondorioz ukitutako udal edo kontzejuetako ordezkari organoei.

**Hamabosgarrena.** 2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 19/2000 Foru Legeko Hamabosgarren Xedapen Gehigarriko 1. zenbakia indarrak gabe uzten da.

**Hamaseigarrena.** Foru Lege honek indarra hartzen duen egunetik aurrera, nekazaritzaren finantzazioari buruzko lege-arauen testu bategineko artikulua (testu bategin hori otsailaren 16ko 54/1998 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) honela geldituko dira:

Bat. 3.c) artikulua.

"c) Ondoko inbertsio hauek:

\* Tuberkulosiaren, bruzelosiaren, leukosiaren eta peripneumoniaren aurkako osasun kanpainen ondorioz hil diren behiak ordeztzekoak, nekazaritzako aseguru konbinatueterako indarra duen planean babestu ezin badira.

\* Kooperatibek eta eraldaketako nekazaritza sozietateek makinak erostekoak, baldin eta makina horiek bazkideek zuzenean eta batera erabiltzeko erosten badira."

Bi. Hamalagarren artikuluko bigarren lerroka da indarrik gabe uzten da.

Hiru. 21. artikulua

"21. artikulua. Pentsioaren zenbatekoa.

16. artikuluko a) letran aipatzen diren laguntzak gauzatzeko, aseguruaren kostua ordaintzeko diru laguntza emanen da, Estatuko Nekazaritza-Asegurueterako Entitateak xede bererako emandakoa kontuan hartuz; diru laguntza bien batuketa ezin izanen da aseguruaren kostuaren 100eko 80tik gorakoa izan.

**Hamazazpigarrena.** FEOGAko Berme ataleko kontuak kitatzeko prozedurari dagokionez, Europako Kontseiluaren 729/70 Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen Europar Batzordearen 1995eko uztailaren 7ko 1663/95 Erregelamenduaren ondoriozko betebeharrak beteko direla bermatzeko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak laguntza kontratuak egiten ahalko dituzte, FEOGAko aipaturiko Berme ataletik heldu diren laguntzen eskatzaileei ordainketak egiteko oinarri hartzen diren egitateak kontrolatu eta egiaztatzeko, edo Nafarroako Foru Komunitateko Erakunde Ordaintzailearen funtzioak betetzen laguntzeko. Halaber, Nafarroako Gobernuak eraturiko sozietate publikoen esku uzten ahalko dira eginbehar horiek.

**Hemezortzigarrena.** Ekimen publikoko industrialdeen akatsak eta ezak konpontzeko inbertsioak sustatzen dituzten toki entitateek, haiei badagokie industrialdeak zaindu eta mantentzea, zilegi izanen dute udal mailako jarduera ekonomikoak paratzeko industrialdeen sustapenari buruzko otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legeko 5. artikuluan aurreikusitako laguntzak jasotzea, baldin eta egin zirenetik gutxienez hamabost urte iragan baldin badira eta 300.000 eurotik gorako inbertsioa bada.

**Hemeretzigarrena.** Ahalmena ematen zaio Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departam-

entuari behar dituen lankidetzak hitzarmenak egiteko "Navarra de Suelo Industrial S.A." (NASUIN-SA) sozietate publikoarekin; hain zuzen ere, hitzarmen horien helburua da industri azpiegituren eskasiak betetzea, betiere kasuan kasuko urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan horretarako jartzen diren kontusailen kargura.

**Hogeigarrena.** Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak ordaintzen dituen aldizkako prestazio eta pensioengatik bidegabeki jasotako kopuruaren zatikako itzulketa erabakiko du Ekonomi eta Ogasun Departamentuak, eta ez du ez korriturik ez bermerik eskatuko, aipatu erakunde autonomoak proposatuta.

**Hogeita batgarrena.** Foru Lege honek indarra hartzearekin batera, hirugarren adinekoendako zerbitzuak finantzatzen laguntzeko egoizetako erabiltzaileek egin beharreko diru-ekarpena arautzen duen 17/2000 Foru Legea aldatuko da, 2. artikuluari beste lerrokada bat erantsik baitzaio, honako hau alegia:

"Era berean, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak antzematen badu hirugarren adinekoendako egoitza zerbitzuen edo diru laguntza baten eskatzaileak diru gutxiago duela aitortu badu, artikulua honetan xedatutakoaren ondorioetarako iruzurra egin nahian, iruzur hori noiz egin zen gorabehera, zerbitzua edo diru laguntza aldi baterako edo behin betiko kendu ahalko da".

**Hogeita bigarrena.** Hirugarren adinekoendako zerbitzuak finantzatzen laguntzeko, egoizetako erabiltzaileek egin beharreko diru-ekarpena arautzen duen 17/2000 Foru Legearen azken xedapenetan bigarrean ezarritakoari jarraikiz, Foru Lege honek indarra hartzearekin batera, gehiengo prezio hauek finkatuko dira:

Zahar-etxea:

Berez baliatzen den batentzako plaza: 688,30 euro

Laguntza behar duen batentzako plaza: 1.251,44 euro

Eguneko zentroa: 688,30 euro

**Hogeita hirugarrena.** Abenduaren 19ko 2356/1984 Errege Dekretuz sortutako Transferentzia Batzordean, bertan egoteko eskaria egin duten edo propio eskatzen duten parlamentario taldeen ordezkariak osatuko dute Nafarroako Gobernuaren ordezkariak. Nafarroako Gobernuaren ordezkariak bere adostasuna emateko Estatuko zerbitzuen transferentzia bati, betiere beharrezkoa izanen da parlamentario taldeetako ordezkari gehienek aldeko botoa; ondorio horietara

rako, ordezkari horietako bakoitzak, bere taldean zenbat parlamentario dauden, horren arabera boto kopurua izanen du.

**Azken xedapena**

Foru Lege honek 2003ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

---



---

**H Sails:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK**

---

## **2003 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko arauak**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari enzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. 2003 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko hurrengo arauak onartzea:

1go. 2003 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua –proiektua aurrerantzean– Nafarroako Gobernuaren 2001eko azaroaren 11ko Erabakiz Biltzarrera bidalia izan dena eta Parlamentuko Erregistro Orokorrean 2001eko azaroaren 12an sartu dena, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari igorriko zaio, horrek izapida dezan.

2gn. Proiektua berehala argitaratuko da Biltzarrerako Aldizkari Ofizialean, eta argitaratzearekin batera epe bat irekiko da, 2002ko azaroaren 28ko goizeko 12:00etan bukatuko dena. Parlamentuko taldeek eta foru parlamentarioek zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeari zuzendutako ziodun idatziaren bitartez.

3gn. Zuzenketak izan ahalko dira:

a) Proiektu osoarekikoak, proiektua Foru Diputazioari itzultzeko proposatuz eta hasierako proiektuaren oinarri izan zirenez bestelako printzipioetan oinarritutako proiektua lantzeko agindua emanaz Foru Diputazioari.

Programa eta Ekonomia Korrelazioa izenekoa agertzen diren programen egituretako edozeinekikoak. Programen Egitura bat erabat aurkatzeko helburua duten zuzenketak osoko zuzenketa bezala planteatu beharko dira.

b) Proiektuaren barruko edozein programa, proiektu zein gastu-kontzepturekikoak.

Aurrekontuen kontusaileko sailkapena jasotzen duen liburukian eginen da aipatu gastu-kategorien identifikazioa.

c) Proiektuaren edozein artukulurekikoak.

4gn. Kontzepturen baten gastu-gehikuntza edo dirusarreraren gutxitzea dakarten zuzenketek Foru Diputazioaren aurreko onespina beharko dute biderapenerako onetsiak izateko.

Hala ere, aipatu onespina ez da derrigorrezkoa izanen aurkeztutako zuzenketak gastu-gehikuntza edo dirusarreraren gutxitzea finantzatzeko proiektuan izendaturiko baliabideak zehazten baldin baditu.

Aipatu baliabideak izendatzeko modua aurreko xedapenean zehaztu dena izango da.

5gn. Zuzenketak aurkezteko epea bukatu baino lehen, Parlamentuko lehendakariak Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordearen eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren arteko lan-bilerarako deia eginen du; zuzendari nagusiekin eta egoki irizitako teknikariekin bertaratu daiteke aipatu kontseilaria.

6gn. Osoko zuzenketarik aurkeztu baldin bada, Batzordeko Mahaiak tramitera onartu ala ez erabakiko du eta Batzordeko lehendakariak Parlamentuko lehendakariari bidaliko dizkio, eztabaidatu behar diren Osoko Bilkuraren gai zerrendan sartzeko.

7gn. Zuzenketak aurkezteko epea bukatu ondoren, zuzenketak tramitera onartzeari buruzko iritzia emango du Batzordeko Mahaiak; Foru Diputazioak, noski, gastu-gehikuntza edo dirusarreraren gutxitzea ekar dezaketenei buruzko txostena aurretik egin beharko du eta egun baliadun bateko epearen barruan bidali. Bilkura berean ekinen dio Batzordeko Mahaiak tramitera onartutako gainerako zuzenketak sailkatzeari eta Batzordekideei eta Biltzarreko lehendakariari helaraziko dizkie.

8gn. Parlamentuko lehendakariak Ekonomia eta Ogasun Batzordea biltzeko deia egin dezake, hogeita lau ordu baino gutxiagoko aurrerapenarekin, eztabaidari ekiteko.

9gn. Osoko Bilkuran, osoko zuzenketa eztabaida eta bozketa Erregelamenduko 88 eta 130. artikuluek ezarritakoaren arabera eginen da.

10gn. Osoko eztabaida bukatu eta Osoko Bilkurak proiektua Foru Diputazioari itzultzea erabaki ez badu, edo osoko zuzenketarik ez bada, Biltzarreko lehendakariak finkatu toki, egun eta orduan bilduko da Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordea, arau hauen 8. puntuaren arabera deialdian.

11gn. Batzordean, honako hauek eztabaidatu eta bozkatuko dira lehenbizi, Erregelamenduaren 131. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduan: 2003 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren artikulua eta horiei aurkeztu zaizkien zuzenketak.

12gn. Ondoren, honako hauek eztabaidatu eta bozkatuko dira, Erregelamenduaren 131. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduan: zuzenketak aurkeztu zaizkien gastu- eta dirusarrerakategoria ezberdinak eta horiei aurkeztu zaizkien zuzenketak. Zuzenketarik jaso ez dituztenak elkaturik eztabaidatu eta bozkatuko dira.

13gn. Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko epea abenduaren 20ko 19:00etan bukatuko da.

14gn. Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatuko dira 2003 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuko artikulua eta haiei buruzko zuzenketa eta boto partikularrak. Multzoka eztabaidatuko dira; hain zuzen ere, Parlamentuko talde bakoitzari txanda bat egokitu zaio bere zuzenketa eta boto partikular guztiak defendatzeko.

15gn. Horren ondoren eztabaidatu eta bozkatuko dira zuzenketen edo boto partikularren xede

izan diren gastu eta dirusarrera kategoriak eta haiei buruzko zuzenketa eta boto partikularrak. Haien eztabaida departamentuka burutuko da, Parlamentuko talde bakoitzak departamentu bera-ri dagozkion zuzenketa edo boto partikular guztiak batean defenda ditzan eta, halaber, zuzenketa edo boto partikularrei buruzko txandak elkartuko dira. Zuzenketen edo boto partikularren xede izan ez direnak elkaturik eztabaidatu eta bozkatuko dira.

16gn. Zuzenketak onestearen edo dirusarrera- edo gastu-artikulu edo kontzeptuak bozkatzearen ondoriozko artikulua edo kontzeptu haiek zentzugabeak edo osatugabeak badira Aurrekontuak kontabilitate-lerroka biltzen dituen liburukiarekiko, Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeko Mahaiak eta, hala balitz, Biltzarreko Mahaiak behar diren aldaketak sartzen ahalko dituzte, izan zitezkeen zentzugabekeriak zuzentzeko.

17gn. Arau hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituko zaio.

18gn. Biltzarreko Mahaiaren Erabakiaren bidez aldatzen ahalko dira arau hauek, Eledunen Batzarrekin bat.

2. Arau hauek Parlamentuko taldeen eledunei, Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeko Mahaiari eta Foru Diputazioari igortzea, eta Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzea.

Iruñean, 2002ko azaroaren 12an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

HARPIDETZAREN PREZIOA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA
ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	NAFARROAKO PARLAMENTUA
Urte bat ..... 39,07 euro	«Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala»
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 0,96 »	Arrieta 12, 3
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 1,14 »	31002 IRUÑA